



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriak 30

Vitoria-Gasteiz, 30 de octubre de 2018

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK “ELKARLAN” SARIEN LAUGARREN EDIZIOA DEITU DU, BALIO PUBLIKOA SORTZEKO GAI DIREN GIZARTE PROIEKTUAK AITORTZEKO

- **Herritarrek sustatzen dituzten ekimen berritzaileak aitortzea helburu duten sarien laugarren edizioa da**

Gobernu Kontseiluak 2018rako “*Eusko Jaurlaritzaren balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Elkarlan*” sarien deialdia onetsi du. Eusko Jaurlaritzak deitzen dituen sari horien laugarren edizioa da; horien bidez, honako sei jardun-eremuetakoren batean balio publikoa sortzeko ahalmena duten hiru proiektu aintzatetsi nahi dira:

- ✓ Osasuna
- ✓ Ingurumena
- ✓ Garapen ekonomikoa
- ✓ Ikaskuntza-kultura
- ✓ Gizarte-kohesioa
- ✓ Gobernamendua, kultura demokratikoa eta erabaki publikoetako partaidetza

Hautaketa-batzordean aurreko deialdiko saridunek parte hartzen dute, eta batzordeak berak proiektuak dagoeneko ezarrita edo fase aurreratuan egotea balioetsiko du, berritzaileak izatea, elkarlanean oinarritutako partaidetzakoak izatea eta, horrela, gizarteak antolatze eta jarduteko duen gaitasuna eredu adieraztea, gizarte-inpakturako ahalmena izatea eta genero-ikuspegia sartzea.

18.000 EURO

Deialdia, eskabidea aurkezteko egunean, helbide soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta beren jardura nagusia bertan egiten duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei baino ez zaie zuzentzen. Aukeratzen diren hiru proiektuetako bakoitzak 6.000 euro gordineko saria izango du, eta saritutako proiektua informazio-bide eta komunikabideetan zabalduko da.

Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabideak www.euskadi.eus orrialdearen bidez aurkeztuko dira.

“*Eusko Jaurlaritzaren balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Elkarlan*” sarien laugarren deialdiko saridunen berri 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen jakingo da.

HELBURU ESTRATEGIKOA

Sari horien deialdia [*Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren*](#) helburu estrategikoetako batean sartzen da; Gobernuak jarri zuen martxan 2014an, eta, horren bidez, *“esperientzia berritzaileak garatzea sustatzen da, gure kultura demokratikoan berriak izan eta parte-hartzeari bide emateko formulak esperimintatzeko aukera ematen duten proiektu pilotuentzako laguntzaren bidez”*.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

ENERGIA ALTERNATIBOAK ERABILTZEN DITUZTEN ERAIKIN, INSTALAZIO, BERRIZTAGARRI ETA IBILGAILUETAN EGINIKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN INBERTSIOAK 89 MILIOIKOAK IZANGO DIRA 2025ERA ARTE

- Euskal sektore publikoaren jasangarritasun energetikoa hobetzeko neurri zehatzak hartu ahal izateko oinarriak onetsi dira
- Aurreikusitako jarduketek aurrezpenak ekarriko dituzte, 2025. urtean energiaren amaierako kontsumoaren % 25era iristeko

2030erako Euskadiko Estrategia Energetikoak (3E2030), helburu gisa, besteak beste, euskal administrazio publiko guztiak energetikoki eraginkorragoak eta jasangarriagoak izateko inplikazioa lortzea aurreikusten du. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko Irailaren 22ko 178/2015 DEKRETUaren testuinguruan, gaur Euskadiko Gobernuak Jasangarritasun Energetikorako Jarduketa Plan Orokorra onetsi du. Planak administrazioen mendeko zerbitzu eta instalazioetan kontsumoa murrizteko neurriak zehazten ditu, bai eta horien eremuan energia berriztagarriak sustatzekoak ere.

Helburu horiek eraginkortasunez betearazteko, Planak eraikin eta instalazioen zerrenda bat jaso du, horiek taldekatzeko jarduketa-unitateen zehaztapena, jarduketa-unitateetarako helburuen ezarpena eta auditoretza- eta egiaztapen-plana irizpideekin. Lan egiten duten langileen gaikuntza- eta sentsibilizazio-plana ere zehazten du, beharrezko inbertsioen estimazioa eta jarduketa bakoitza egiteko epeak.

Gaur Plan hau onetsi ondoren, aitortutako unitate bakoitzean jarduteko plan bereziak prestatuko dira. Horiek eraikin eta instalazioen auditoretzak egin ondoren zehaztuko dira; horretarako, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-errentagarritasun handieneko jarduketak hautatu eta irizpide objektiboen arabera lehenetsiko dira.

Energia alternatiboak erabiltzen dituzten eraikin, instalazio, berriztagarri eta ibilgailuetan eginiko eraginkortasun energetikoaren inbertsioak, Dekretuak aplikatzen dituen erakundeen kasuan, 89 milioikoak izango dira 2016-2025 aldian.

89 M€-ko inbertsioak

- Eraginkortasuna eraikinak 64 M€
- Berriztagarriak eraikinak 9 M€
- Ibilgailuak (gainkostua) 16 M€

Inbertsioak sortutako aurrezpenen bidez berreskuratuko dira, aplikatutako neurrien itzulketa-epeen arabera. Aurreikusitako jarduketek aurrezpenak ekarriko dituzte, 2025. urtean energiaren amaierako kontsumoaren % 25era iristeko

Inbertsioen finantzaketa Dekretua aplikagarri duten erakundeen erantzukizunekoa izango da, eta, oro har, beren aurrekontuen arabera egingo da. Inbertsioak finantzatzeko, inbertsioak egiten dituzten eta horiek aurrezpenak partekatuz berreskuratzen dituzten zerbitzu energetikoko enpresak kontratatu ahalko dira.

Hezkuntza

533 PLAZA ATZERRIAN INGELES, FRANTSES ETA ALEMAN IKASTAROAK EGITEKO

- Hiru asteko iraupena izan ohi duten ikastaroak dira, 2019ko udan burutuko direnak, eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduak

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019ko udan Alemanian, Frantzia, Irlandan eta Erresuma Batuan hizkuntza ikastaroak egiteko egonaldietarako deialdia egiten duen Agindua onartu du. 533 plaza deitzen dira, DBHko 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailetako ikasleei zuzenduta.

533 plaza horietako bat eskuratu nahi duten ikasleek bete beharreko baldintzak, honako hauek dira:

- Aukeratutako hizkuntzan edo hizkuntzetan (ingeleza, frantsesa edo alemana) gutxienik 7 puntuko nota eskuratu izana aurreko ikasturtean.
- Aurreko ikasturteko batz besteko nota eta hautatutako hizkuntzan jasotako notaren arteko batuketan 16 puntu edo gehiago lortu izana.
- Ikasleak eskatzen duen plazari dagokion hizkuntza ikasia izan behar du aurreko bi ikasturteetan.
- Ikasleak 2019an gehienez ere 19 urte betetzea.

Plazen banaketa egiterakoan, kontuan izaten dira bai eskaera egin duen ikaslearen hezkuntza-maila, eta baita haren familiaren egoera ekonomikoa ere. Ondorioz, honela banatzen dira 533 plaza horiek, lau herrialdeetan:

Herrialdea eta hizkuntza	1. tarte		2. tarte		Plazak, guztira
	DBH	Batx.	DBH	Batx.	
1. Ingelesa Irlandan	70	83	20	25	198
2. Ingelesa Erresuma Batuan	88	107	32	38	265
3. Frantsesa Frantzia	30		20		50
4. Alemana Alemanian	10		10		20
Plazak, guztira	388		145		533

Lehen tarteetan, aurreko ikasturtean beka jaso zuten ikasleak hartzen dira kontuan, eta bigarren tarteetan berriz, bekarik jaso ez zuten ikasleak.

Hezkuntza sailak 847.038 euro bideratuko ditu deialdi honetarako. Osatutako plaza bakoitzak, ondorengo gastuak hartzen ditu barnean: joan etorriko bidaia, Euskadiko hiru hiriburuetatik egonaldia burutuko den herrialdeko hiriraino, bidaia aseguru, matrikula eta ikasketa materiala, ostatua, jatorduak eta ikastaroa burutuko den ikastetxerako hiri-garraioa.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Hezkuntza

250.000 EURO PARTIKULA-AZELERAZIOAREN ETA NEUTRONIKAREN ALORREKO IKERKETA INDARTZEKO

Eusko Jaurlaritzak gaurko Gobernu Kontseiluan onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 250.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea Materials Physics Center (MPC) Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroari (BERC). Diru-laguntza partikula-azelerazioaren eta neutronikaren alorreko ikerketa indartzeko helburuetarako erabiliko du ikerketa zentroak.

MPC - Materials Physics Center irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta helburu hauek hartuta dihardu lanean: materialen fisikan bikaintasunezko foro intelektual bat eratzea, eta ezagutzaren eremu horretan bertan gradu-ondoko ikerketa eta irakaskuntza jarduerak bultzatu, gauzatu, lagundu eta finantzatzea. Bereziki, bikaintasunezko zentro honen jardunean nabarmentzekoa da '*Polymers and Soft Matter*' (PSMG) lan taldea burutzen ari den lana. Talde hau erreferente de nazioartean polimeroen eta materia kondentsatu bigaren ikerketari aplikaturiko neutroi-tekniken arloan. Egun Euskadin neutroi-teknikekin burutzen den jarduera zientifiko nagusia zentro honek burutzen du.

Hori horrela, *Polymers and Soft Matter* taldea aitzindaria izan da, Estatu mailan, neutroien esperimenduak egiten. Neutroien dispertsio-neurriak instalazio handietan hartzen dira –normalean, nazioarte-mailakoetan– eta denbora mugatuz. Horrela, bada, egin beharreko esperimenduak prestatzea eta tokiko laborategietan teknika osagarriekin aurretik neurriak hartzea beharrezkoa da neutroien neurketa hobetu eta esperimenduak arrakastatsuagoak izateko. Emandako laguntzaren bidez, Donostian dagoen taldearen laborategian teknika osagarriak garatu ahalko dira materia kondentsatua delakoa aztertzeke, besteak beste, X izpiak angelu baxuetara difraktatzea (SAXS) eta argiaren dispertsioa (*light scattering*).

Osasuna

**JUAN JOSÉ AURREKOETXEA IZENDATU DUTE OSASUN SAILEKO
OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARI BERRI, MIREN
DORRONSOROK ERRETIRO HARTU ONDOREN**

Gobernu Kontseiluak Juan José Aurrekoetxea Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendari berri izendatzea erabaki du gaur. Kargu horretan, Miren Dorronsoro andrea ordeztuko du, gaur bertan, erretiroa dela eta, hark berak eskatuta kargugabetu ondoren.

Juan José Aurrekoetxea Agirre Bilbon jaio zen, 1955. urtean. Medikuntzan lizentziaduna da, eta espezialista Laneko Medikuntzan eta Prebentzio Medikuntzan eta Osasun Publikoan. Gainera, doktoregoa egin du arlo horretan. Horrez gain, ibilbide luzea egin du euskal osasun-sistema publikoan. Osasun Saileko funtzionarioa eta Biodonostiako ikertzailea da. Bertan, ikerketa-proiektu ugarritan parte hartu du, eta eragin handiko aldizkarietan argitaratutako nazioarteko artikuluak idatzi ditu.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak Osasun Publikoaren eta Adikzioen egungo zuzendari Miren Dorronsoro kargugabetu du, eta eskerrak eman dizkio 30 baino gehiago izan diren azken urte hauetan Osasun Sailean eta Osakidetzan burutu duen ibilbide luzean egindako lanagatik. Miren Dorronsoro doktorea 2013-2020 aldiko Osasun Planaren, Alkohola eta Adingabeak Planaren eta Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenen bultzatzaile nagusia izan da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 65.000 EUROKO LAGUNTZA ONARTU DU JAI ALAI WORLD TOUR ZESTA-PUNTA NAZIOARTEKO ZIRKUITUA BABESTEKO

- **Munduko Pilota Batzarrak diru-laguntza zuzen hau jasoko du, espezialistarik onenak bildu dituen txapelketa hori antolatzeko**

Gobernu Kontseiluak 65.000 euroko diru-sail bat onartu du, gaurko bileran, Jai Alai World Tour zesta-punta nazioarteko zirkuituaren antolakuntza diruz laguntzeko. Munduko Pilota Batzarra Elkarteari emandako laguntza honen xedea da lehiaketa horren aurtengo edizioa babestea.

Jai Alai World Tour zesta-punta nazioarteko zirkuitua 2014. urtean jaio zen, modalitate honetako kirolari profesionalik onenak bilduko zituen txapelketa bat sustatzeko asmoz. Zirkuituak lau hileko iraupena izan du aurten, uztailetik urriaren amaiera arte; aurtengo edizioak hiru grand slam, hiru open eta sei master izan ditu. Edizio honetan zehar, hogeita hamar bat pelotarik Hossegor, Hondarribia, Zumaia, Bordele, Bartzelona edo Gernikako frontoiak bisitatu dituzte.

Proiektu honen jatorria zesta-punta bultzatzeko aukeren inguruko hausnarketa-prozesua izan zen, non Eusko Jaurlaritzak, Munduko Pilota Batzarrak eta Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak parte hartu baitzuten. Jai Alai World Tour zirkuituaren xedea da zesta-puntaren mundua sustatzea, zaleentzat erakargarria den formatu bat eskainiz udako eta udazkeneko hiletan zehar. Denbora horretan, AEB eta Mexiko utzi eta zirkuitua hartzen duten frontoitan kokatzen da lehiaketaren fokoa.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 50.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU INDUSTRIA ONDARE ETA HERRI LANEKO EUSKAL ELKARTEARENTZAT

- **Laguntza honi esker, Elkarteak ondare horren inguruko ikerketa, hedapena eta defentsa sustatuko du**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, bere gaurko saioan, 50.000 euroko diru-laguntza onartu du Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearentzat, Euskadiko industria-ondarearen inguruko bere lana burutu dezan. Laguntza honen bidez, Elkarteak industria-ondarearen eta herri-lanaren inguruko ikerketa, defentsa eta hedapena sustatuko du, eta ondare horri guztiari balio emateko lan egingo du.

Diru-laguntza honen onarpenaren oinarrian dago kultura ondarearen hedapenari ematen zaion garrantzia, euskal kultura beraren garapenerako beste dimentsio bat eskaintzen baitu. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aburuz, zinez interesagarria da Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearen lana diruz laguntza, horren helburuak hauek direlarik:

- Babestutako industria-ondarea herritarrei hurbiltzea.
- Industria-ondarearen proiektzioa eta errekonozimendua hobetzea euskal gizartean.
- Euskadiko industria-ondarea irisgarriagoa egitea.
- Ondarearen inguruko balio positiboak hedatzea, ikuspegi negatiboen kontra eginez.
- Euskal industria-ondareari balio ematea ikuspegi global batetik eta bere osotasunean.

Bestalde, nabarmendu behar da kultura ondarearen garapena sektore estrategikoa dela Eusko Jaurlaritzak Kultura eta Sormen Industriaren alde egin duen apustuaren barnean. Bultzada horren helburuetako bat da Sormen Barruti Adimentsu bat sortzea Euskadin, kultura eta sormenaren esparruan lan egiten duten entitateen lana laguntzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 23.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU HIZKUNTZEN KUDEAKETA ETA KUDEAKETA AURRERATUA PROGRAMA GARATZEKO, EUSKALITEN BITARTEZ

- **Proiektu honen helburua da euskara teknikariek kudeaketa aurreratuaren tresnetan duten gaitasuna hobetzea**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 23.000 euroko diru-laguntza onartu du, bere gaurko saioan, Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioarentzat, Hizkuntzen Kudeaketa eta Kudeaketa Aurreratua programa gara dezan. Proiektu honen helburua da euskara teknikariek kudeaketa aurreratuaren tresnetan duten gaitasuna hobetzea eta, era berean, lantzea nola integratu daitekeen hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistemaren barruan.

Egitasmo honetan parte hartuko dute entitate publiko zein pribatuetako euskara-teknikariek eta kudeaketa aurreratuan lan egiten ari diren langileak. Frogatuta dago hizkuntzen kudeaketa eraginkorra izango bada, erakundearen kudeaketa-sisteman integratu beharra dagoela eta kudeaketa integratua giza-eta diru-baliabideak optimizatzeko modua dela. Hori dela-eta, Hizkuntzen Kudeaketa eta Kudeaketa Aurreratua programak euskara teknikarien ezagutza trebatuko du kudeaketa aurreratuarekin zerikusia duten gaietan, hizkuntzen kudeaketaren lehiakortasuna eta profesionaltasuna sustatuz.

Euskalit 1997an sortu zen EAEko enpresetan kalitatean oinarritutako kudeaketa-sistema sustatzeko eta Euskadi kudeaketa aurreratuan erreferente bilakatzeko helburuekin. Fundazio gisa elkartutako erakunde taldea da eta, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, erakundeetan kudeaketa aurreratuko elementuen erabilera sustatzen du, Euskadiren lehiakortasun eta garapen iraunkorrari lagunduz.

Lana eta Justizia

GOBERNU KONTSEILUAK DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO DEKRETUA ONARTU DU

- Dekretuaren helburu nagusietako bat doako justizia-sistemaren kudeaketan efizientziarik handiena lortzea da (joan den urtean, 21.564 pertsonak baliatu zuten sistema hori Euskadin)
- 2018. urtean, 14.580.000 euro bideratu dira Doako Laguntza Juridikora, eta 2019ko Aurrekontu Proiektuan, % 3,4ko igoera aurreikusi da
- Euskadin, 2.700 profesional daude Ofiziozko Txandan inskribatuta (2.400 abokatu eta 300 prokuradore)

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen Doako Laguntza Juridikoari buruzko Dekretuaren xedea doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko prozedura eta bertan esku hartzen duten organo eta erakundeen funtzionamendu- eta lankidetzaz-erregimena arautzea da.

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Dekretuak, halaber, doako justizia-sistemaren kudeaketan efizientziarik handiena lortzeko helburua du, besteak beste (joan den urtean, 21.564 pertsonak baliatu zuten sistema hori Euskadin). Dekretuaren artikuluek abokatutzako eta prokuradoretzako profesionalen elkargoen adostasuna lortu dute, legegintzako berritasunak egokitzen dituzte, administrazio-izapideak sinplifikatzen dituzte, genero-indarkeriako kasuetarako modulu espezifikoak sortzen dituzte, konplexutasun bereziko kasuetarako modulu bereziak ezartzen dituzte, eta abokatu eta prokuradoreei ordaintzeko indarrean dauden egungo baremoak eta haien elkargoentzako zenbatekoak gehitzen dituzte.

Euskadin, 2.700 profesional daude Ofiziozko Txandan inskribatuta (2.400 abokatu eta 300 prokuradore).

2018. urtean, Eusko Jaurlaritzak 14.580.000 euro bideratu ditu Doako Laguntza Juridikora, eta 2019ko Aurrekontu Proiektuan, % 3,4ko igoera aurreikusi da.

Dekretu hau Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean jurisdikzioa duten organo judizialeetan bideratutako auzi mota ororen eta administrazio-prozeduren inguruko doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea aitortzeko aplikatuko da, administrazio eskuduna edozein izanik ere, betiere legez doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidearen barruan badaude.

Bereziki, genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten toki-administrazioetan, administrazio korporatiboetan eta

erakunde-administrazioetan sortzen diren administrazio-prozedurei dagokienez, eta atzerritarren arloan Estatuko Administrazio Orokorraren organoetan sortzen diren administrazio-prozeduren eremuan doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea aitortzeko, arlo horri buruzko Estatuko erregelamendua aplikatu behar da.

Era berean, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legeak gatazkak konpontzeko babestutako prozesuetan (hala nola adiskidetzean, bitartekotzan edo arbitrajea) aplikatuko da araudi hau.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO CONVOCA LA CUARTA EDICIÓN DE LOS PREMIOS “ELKARLAN” PARA RECONOCER PROYECTOS SOCIALES CAPACES DE GENERAR VALOR PÚBLICO

- **Es la cuarta edición de unos premios que buscan el reconocimiento de iniciativas innovadoras promovidas por la ciudadanía**

El Consejo de Gobierno ha aprobado la convocatoria para 2018 de los premios “*Elkarlan, proyectos de cogeneración de valor público del Gobierno Vasco*”. Es la cuarta edición de estos galardones que convoca el Gobierno Vasco para reconocer tres proyectos que promueven la generación de valor público en alguna de estos seis ámbitos de actuación:

- ✓ Salud
- ✓ Medio ambiente
- ✓ Desarrollo económico
- ✓ Aprendizaje-cultura
- ✓ Cohesión social
- ✓ Gobernanza, cultura democrática y participación en las decisiones públicas

El comité de selección, en el que participan los premiados de la convocatoria anterior, valorará el que los proyectos estén ya implantados o en fase avanzada, que sean innovadores, de participación colaborativa que ejemplifiquen la capacidad de la sociedad para organizarse y actuar, su potencial de impacto social y que incorporen la perspectiva de género.

18.000 EUROS

La convocatoria está dirigida, únicamente, a las personas jurídicas sin ánimo de lucro que tengan su domicilio social y desarrollen su actividad principal en la Comunidad Autónoma de Euskadi a la fecha de presentación de su solicitud. Cada uno de los tres proyectos elegidos tendrá como premio 6.000 euros brutos y la difusión del proyecto premiado en los medios de información y comunicación

El plazo de presentación de las candidaturas será de un mes desde de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco. Las solicitudes se tendrán que presentar a través de la página www.euskadi.eus.

Los ganadores de la cuarta convocatoria de los premios “*Elkarlan, proyectos de cogeneración de valor público del Gobierno Vasco*” se conocerán antes del 1 de enero de 2019.

OBJETIVO ESTRATÉGICO

La convocatoria de estos premios se enmarca en uno de los objetivos estratégicos del [Libro Blanco de Democracia y Participación Ciudadana para Euskadi](#), puesto en marcha por el Gobierno en 2014, que propone “*promover el desarrollo de experiencias innovadoras a través del apoyo a proyectos pilotos que puedan resultar novedosos en nuestra cultura democrática, y que permitan experimentar fórmulas distintas de favorecer la participación*”.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

LAS INVERSIONES EN EFICIENCIA ENERGÉTICA EN EDIFICIOS E INSTALACIONES, RENOVABLES Y VEHÍCULOS QUE USEN ENERGÍAS ALTERNATIVAS SERÁN 89 MILLONES HASTA 2025

- **Aprobadas las bases que permiten llevar a cabo medidas concretas para mejorar la sostenibilidad energética del sector público vasco**
- **Las actuaciones previstas conllevarán ahorros con un objetivo de alcanzar el 25% del consumo final de energía en al año 2025**

La Estrategia Energética de Euskadi 2030 (3E2030) contempla, como uno de sus objetivos, lograr la implicación de todas las Administraciones Públicas Vascas para ser energéticamente más eficientes y sostenibles. Para ello, en el marco del Decreto 178/2015, de 22 de septiembre, sobre la sostenibilidad energética del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se ha diseñado el Plan General de Actuación para la Sostenibilidad Energética aprobado hoy por el Consejo de Gobierno. Este Plan concreta medidas encaminadas a reducir el consumo en los servicios e instalaciones que dependen de las Administraciones, así como a impulsar las energías renovables en el ámbito de las mismas.

Para materializar de forma efectiva estos objetivos, el Plan incluye una relación de edificios e instalaciones, la determinación de las unidades de actuación para su agrupación, el establecimiento de objetivos para las unidades de actuación, y un plan de auditoría y certificación con los criterios. También detalla un plan de capacitación y sensibilización para el personal, la estimación de las inversiones necesarias y los plazos para la realización de cada una de las actuaciones.

Tras la aprobación hoy de este Plan se elaborarán planes específicos de actuación para cada unidad reconocida. Estos se definirán tras realizar auditorías de edificios e instalaciones, seleccionando aquellas actuaciones de mayor rentabilidad económica, medioambiental o social y priorizándolas según criterios objetivos

Las inversiones en eficiencia energética en edificios e instalaciones, energías renovables y vehículos que usen energías alternativas estimadas para el conjunto de las organizaciones a las que aplica el Decreto son de 89 millones de euros en el periodo 2016-2025.

Inversiones 89 M€

- Eficiencia edificios 64 M€
- Renovables edificios 9 M€
- Vehículos (sobrecoste) 16 M€

Las inversiones se recuperarán a través de los ahorros generados en diferente medida según los plazos de retorno de las medidas aplicadas. Las actuaciones previstas conllevarán ahorros con un objetivo de alcanzar el 25% del consumo final de energía en el año 2025.

La financiación de las inversiones será responsabilidad de las organizaciones a las que se aplica el Decreto, y en general se realizará a través de sus presupuestos. Las inversiones se podrán financiar a través de la contratación de empresas de servicios energéticos que realicen las inversiones y recuperen las mismas compartiendo los ahorros.

Educación

533 PLAZAS PARA CURSOS DE INGLÉS, FRANCÉS Y ALEMÁN EN EL EXTRANJERO

- Se trata de cursos de idiomas de tres semanas de duración, a realizar durante el verano de 2019, dirigidos al alumnado de Secundaria

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan 533 plazas para la estancia y realización de cursos de idiomas en Alemania, Francia, Irlanda y Reino Unido durante el verano de 2019, dirigidas al alumnado de de 3º y 4º de ESO y de 1er y 2º cursos de Bachillerato.

Los alumnos y alumnas interesados en solicitar alguna de estas 533 plazas han de cumplir los siguientes requisitos:

- Haber obtenido en el curso anterior una nota mínima de 7 en el idioma o idiomas seleccionados (inglés, francés o alemán).
- Alcanzar, además, una puntuación total igual o superior a 16 en la suma de la nota media del curso anterior y la nota del idioma solicitado.
- Cumplir 19 años como máximo en el año 2019.
- Además, el alumno o alumna debe haber cursado el idioma para el que solicita la plaza en los dos cursos anteriores a la fecha de solicitud.

La distribución de las plazas se realiza teniendo en cuenta los niveles educativos del alumnado solicitante y la situación económica de las familias de éstos. Por lo tanto, esas 533 plazas quedan distribuidas en cuatro países, de la siguiente manera:

País e idioma	Tramo 1		Tramo 2		Total plazas
	ESO	Bach.	ESO	Bach.	
1. Inglés en Irlanda	70	83	20	25	198
2. Inglés en Reino Unido	88	107	32	38	265
3. Francés en Francia	30		20		50
4. Alemán en Alemania	10		10		20
Total plazas	388		145		533

En el tramo 1 se encuadran aquellos alumnos y alumnas que el pasado curso hayan obtenido beca en el curso anterior a la fecha de solicitud de plaza, mientras que el tramo 2 comprende al alumnado que no obtuvo beca.

El Departamento de Educación destina a estos cursos un importe de 847.038 euros. Cada plaza convocada incluye los siguientes conceptos: viaje de ida y vuelta desde las tres capitales de la CAV hasta el lugar del país en el que transcurrirá la estancia, seguro de viaje, matrícula y material escolar del curso, alojamiento, manutención y transporte urbano al centro donde se impartirá el curso.

El plazo de solicitud para estas plazas será de un mes, a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el BOPV.

Educación

250.000 EUROS PARA EL FORTALECIMIENTO DE LA INVESTIGACIÓN EN ACELERACIÓN DE PARTÍCULAS Y NEUTRÓNICA

El Gobierno Vasco ha aprobado en el Consejo de Gobierno de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la concesión de una ayuda directa de 250.000 euros al Centro de Investigación Básica y de Excelencia (BERC) Materials Physics Center (MPC), destinados a cumplir con el objetivo de fortalecimiento de la investigación en aceleración de partículas y neutrónica.

MPC - Materials Physics Center es una asociación sin ánimo de lucro, cuyos fines son constituir un foro intelectual y de excelencia en física de materiales y promover, realizar, apoyar, financiar, actividades de investigación y docencia a nivel post-grado en el área de física de materiales. En especial, dentro de este centro BERC es de destacar el trabajo que el grupo de investigación '*Polymers and Soft Matter*' (PSMG) desarrolla, siendo un referente a nivel internacional en el campo de las técnicas de neutrones aplicadas al estudio de los polímeros y la materia condensada blanda y, actualmente, el foco de mayor actividad científica con técnicas de neutrones en el País Vasco.

En este sentido, el grupo *Polymers and Soft Matter*, ha sido pionero a nivel estatal en la realización de experimentos de neutrones. Las medidas de dispersión de neutrones se llevan a cabo en grandes instalaciones -en general de carácter internacional- y durante un tiempo de medida limitado. Así pues, la preparación de los experimentos a realizar, y la realización previa de medidas con técnicas complementarias en los laboratorios locales, resultan cruciales a la hora de optimizar las medidas de neutrones y de facilitar el éxito de los experimentos. La ayuda concedida permitirá desarrollar en el laboratorio del grupo ubicado en Donostia-San Sebastian, técnicas complementarias para el estudio de la llamada materia condensada, como son la difracción de rayos X a ángulos bajos (SAXS) y la dispersión de luz (*'light scattering'*).

Salud

JUAN JOSÉ AURREKOETXEA NOMBRADO NUEVO DIRECTOR DE SALUD PÚBLICA Y ADICCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SALUD TRAS LA JUBILACIÓN DE MIREN DORRONSORO

El Consejo de Gobierno ha acordado hoy el nombramiento de Juan José Aurrekoetxea Agirre como nuevo Director de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud, cargo en el que sustituye a Miren Dorronsoro que, a su vez, ha sido destituida a petición propia, hoy por motivo de su jubilación.

Juan José Aurrekoetxea Agirre nació en Bilbao, en 1955, es Licenciado en Medicina y especialista en Medicina de Trabajo y en Medicina Preventiva y Salud Pública, además de poseer un doctorado en esta materia. Cuenta además con una larga trayectoria en el sistema sanitario público vasco. Es funcionario del Departamento de Salud, investigador de Biodonostia donde ha colaborado en numerosos proyectos de investigación y en artículos internacionales publicados en revistas de gran impacto.

Asimismo, el Consejo de Gobierno, ha cesado a la actual Directora de Salud Pública y Adicciones, Miren Dorronsoro y le ha agradecido la labor que ha desarrollado durante su dilatada carrera tanto en el Departamento de Salud como en Osakidetza a lo largo de los últimos más de 30 años. La doctora Miren Dorronsoro ha sido la principal impulsora del Plan de Salud 2013-2020, del Plan menores y alcohol, y de las Iniciativas de Alimentación Saludable para Euskadi.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA AYUDA DE 65.000 EUROS PARA LA DISPUTA DEL CIRCUITO INTERNACIONAL DE CESTA PUNTA JAI ALAI WORLD TOUR

- **El Consejo Mundial de la Pelota Vasca recibe esta subvención directa destinada a la organización de un campeonato que reúne a los mejores especialistas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una partida de 65.000 euros para apoyar económicamente la organización del circuito internacional de cesta punta Jai Alai World Tour. A través de esta ayuda, concedida a Munduko Pilota Batzarra - Consejo Mundial de la Pelota Vasca y Asociados, se pretende apoyar económicamente la presente edición de este campeonato.

El circuito internacional de cesta punta Jai Alai World Tour nació en el año 2014 con el fin de impulsar un campeonato que uniera a los mejores profesionales de esta modalidad. Este circuito se alarga este año durante cuatro meses, desde julio hasta finales de octubre, y en la presente edición ha incluido tres grand slam, tres open y seis master. A lo largo de la presente edición una treintena de pelotaris han visitado frontones como los de Hossegor, Hondarribia, Zumaia, Burdeos, Barcelona o Gernika.

Este proyecto nació de un proceso de reflexión en torno a cómo relanzar la cesta punta, un debate que implicó al Gobierno Vasco, el Consejo Mundial de la Pelota Vasca y la Federación Vasca de Pelota Vasca. Jai Alai World Tour pretende promocionar el mundo de la cesta punta, presentando un formato atractivo para los aficionados durante los meses de verano y otoño, un periodo en el cual el foco de la competición pasa de estar en EE.UU. y México para situarse en los frontones en los que se disputa este circuito.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DE 50.000 EUROS PARA LA ASOCIACIÓN VASCA DE PATRIMONIO INDUSTRIAL Y OBRA PÚBLICA

- **Gracias a esta ayuda, esta entidad desarrollará actividades de investigación, puesta en valor y difusión de este patrimonio.**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una subvención de 50.000 euros para la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública, a fin de apoyar su labor en torno al patrimonio industrial vasco. A través de esta ayuda económica, la Asociación desarrollará iniciativas vinculadas a la investigación, defensa, puesta en valor y difusión del patrimonio industrial y la obra pública en Euskadi.

La aprobación de esta subvención parte de la premisa de que la difusión del patrimonio cultural aporta una nueva dimensión para el desarrollo de la propia cultura vasca. Así, el Departamento de Cultura y Política Lingüística considera interesante apoyar el programa de la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública, que tiene los siguientes objetivos:

- Acercar al público en general el patrimonio industrial vasco protegido.
- Mejorar la proyección y el reconocimiento del patrimonio industrial en la sociedad vasca actual.
- Hacer más accesible el patrimonio industrial vasco.
- Difundir valores positivos que terminen con la percepción negativa hacia ese patrimonio.
- Poner en valor el patrimonio industrial vasco desde un enfoque global y con visión de conjunto.

El desarrollo del patrimonio cultural es, además, uno de los sectores estratégicos dentro de la apuesta del Gobierno Vasco por las Industrias Culturales y Creativas, un impulso que pretende generar en Euskadi un Distrito Creativo Inteligente que permita impulsar el desarrollo de las empresas e iniciativas que en Euskadi apuestan por la cultura y la creatividad.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DE 23.000 EUROS PARA DESARROLLAR, A TRAVÉS DE EUSKALIT, EL PROGRAMA GESTIÓN LINGÜÍSTICA Y GESTIÓN AVANZADA

- **El objetivo de este proyecto es mejorar la capacidad de las y los técnicos de euskera en lo que a la gestión avanzada se refiere**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una subvención de 23.000 euros para Euskalit, Fundación Vasca para la Excelencia, con el fin de que pueda desarrollar el programa Gestión Lingüística y Gestión Avanzada. El objetivo de este proyecto es mejorar la capacidad de las y los técnicos de euskera en lo que a gestión avanzada se refiere, así como trabajar la integración de la gestión lingüística en el sistema de gestión de empresas y entidades.

Participan en este proyecto tanto personal que desarrolla labores de técnico de euskera como trabajadores y trabajadoras que desarrollan funciones relacionadas con la gestión avanzada. Puede participar tanto personal de empresas privadas como de entidades públicas. El programa parte de la base de que una gestión lingüística eficaz debe estar integrada en el sistema de gestión de las entidades, de manera que esta gestión integrada permita optimizar recursos humanos y económicos. De esta manera, el programa Gestión Lingüística y Gestión Avanzada formará, especialmente a las y los técnicos de euskera, en todas las cuestiones que tengan que ver con la gestión avanzada, impulsando la competitividad y profesionalidad de la gestión lingüística.

Euskalit nació en 1997 con el fin de impulsar entre las empresas de la Comunidad Autónoma de Euskadi sistemas de gestión basados en la calidad, convirtiendo a Euskadi en una referencia en lo que se refiere a gestión avanzada. Euskalit funciona como una Fundación, promovida por el Gobierno Vasco, que reúne a un grupo de organizaciones con el fin de contribuir a su competitividad y al desarrollo sostenible de Euskadi a través de la gestión avanzada.

Trabajo y Justicia

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO DE ASISTENCIA JURÍDICA GRATUITA

- **Alcanzar la máxima eficiencia en la gestión del sistema de justicia gratuita que el año pasado prestó servicio en Euskadi a 21.564 personas es uno de los principales objetivos del Decreto**
- **En 2018 se han destinado 14.580.000 euros a Asistencia Jurídica Gratuita y en el Proyecto de Presupuestos de 2019 se contempla un incremento del 3,4%.**
- **El número de profesionales inscritos en Euskadi en el Turno de Oficio es de 2.700 (2.400 de la abogacía y 300 procuradoras y procuradores)**

El Decreto de Asistencia Jurídica Gratuita aprobado hoy por el Consejo de Gobierno tiene por objeto la regulación del procedimiento para el reconocimiento del derecho de asistencia jurídica gratuita, así como el régimen de funcionamiento y colaboración de los órganos e instituciones que intervienen en el mismo.

El Decreto de Asistencia Jurídica Gratuita tiene entre otros objetivos el de alcanzar la máxima eficiencia en la gestión del sistema de justicia gratuita que el año pasado prestó servicio en Euskadi a 21.564 personas.

El articulado del Decreto cuenta con el consenso de los colegios profesiones de la abogacía y de la procura, adapta las novedades legislativas, simplifica los trámites administrativos, crea módulos específicos para los casos de violencia de género, establece módulos particulares para casos de especial complejidad e incrementa los baremos actualmente vigentes para la retribución de abogadas, abogados, procuradoras y procuradores, así como las asignaciones a sus respectivos colegios profesionales.

El número de profesionales inscritos en Euskadi en el Turno de Oficio es de 2.700 (2.400 de la abogacía y 300 procuradoras y procuradores).

El Gobierno Vasco ha destinado en 2018 a Asistencia Jurídica Gratuita 14.580.000 millones de euros y en el Proyecto de Presupuestos de 2019 se contempla un incremento del 3,4%.

Este decreto es de aplicación para el reconocimiento por la Administración del derecho a la asistencia jurídica gratuita en relación con todo tipo de procesos ante los órganos judiciales con jurisdicción en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco y con los procedimientos administrativos, cualquiera que sea la Administración competente, siempre que se encuentren legalmente comprendidos en el derecho a la asistencia jurídica gratuita.

En particular, en el caso de las mujeres víctimas de violencia de género con respecto a los procedimientos administrativos que se susciten ante la Administración autonómica y ante las Administraciones locales, corporativas e institucionales con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita en el ámbito de los procedimientos administrativos en materia de extranjería que se susciten ante los órganos de la Administración General del Estado, es de aplicación el reglamento estatal sobre la materia.

Igualmente resulta de aplicación la presente normativa a aquellos procesos de solución de conflictos, como la conciliación, mediación o arbitraje, amparados por la Ley de Asistencia Jurídica Gratuita.